

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

NOZeko larrialdi-zerbitzuek 954 pertsona artatu dituzte 2011ko San Fermin jaietan

Kopuru horrek barnean hartzen ditu Nafarroako Ospitale Gunean entzierroetan zauritutako 43 korrikalariei emandako arreta

Jueves, 14 de julio de 2011

Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleetako eta ospitaleaz kanpoko larrialdi-zerbitzuek 954 pertsona artatu dituzte aurtengo Sanferminetan (uztailaren 6ko 12:00etatik uztailaren 14ko 08:00ak arte), zuzenean festarekin lotuta (iaz 996 izan ziren).

Kopuru horrek barnean hartzen ditu entzierroko 43 korrikalariri emandako arreta (2010ean 37 izan ziren). Horietatik lau zezen-adarkadak zaurituak izan dira.

Datu horiek gaur goizean jakinarazi ditu Osasun kontseilari Marta Vera Janín-ek, Nafarroako Osasun Zerbitzuak San Fermin jaietan emandako

osasun-zerbitzuaren balantzea aurkeztean. Prentsaurrekoan Verarekin batera izan dira Nafarroako Ospitale Gunearen zuzendari gerentea, Fernando Boneta Beorlegui, Nafarroako Ospitale Guneako Larrialdi Zerbitzuetako burua, Javier Sesma Sánchez; eta Ospitaleaz kanpoko Larrialdi Zerbitzuetako burua, Antonio Zubiaur Carreño.

Emandako osasun-arretak (entzierrorik gabe)

Entzierroarekin loturarik izan ez duten 911 larrialdietatik, 637 (% 70) San Martin Doktoa osasun-zentroan artatu dira, hura izan baita larritasun gutxien zuten osasun-larrialdientzako erreferentziatzeko zentroa. Nafarroako Ospitale Guneako larrialdi-zerbitzuetan, aldiz, 274 pertsonari eman zaie arreta (%30).

Larrialdi-zerbitzuetara joan diren hiru herritarretik ia bik traumatismoak eta ustekabeko zauri desberdinak zituzten (guztien % 56) eta, askoz ere gutxiagok, intoxikazio etilikoak (% 20) eta erasoak (% 12). Bestelako kasuistikak, esate baterako politraumatismoak, droga-intoxikazioak edo elikadura-intoxikazioak, gutxi gertatu dira.



San Fermin jaietako entzierro bat.

NOZen ospitaleko eta ospitaleaz kanpoko larrialdi-zerbitzuetan pertsona gehien larunbatean, uztailak 9, artatu ziren; zehazki, festarekin lotutako 178 larrialdi. Hurrengoak, ordenan, uztailaren 6a 6 (154), 7a (121), 8a (115), 10a (113), 11 (107), 13a (63) eta 12a (69) izan dira.

Nafarroako Larrialdi Agentziak Iruñeko eta bere Eskualdeko 574 anbulantzia-mobilizazio koordinatu ditu uztailaren 6ko eguerditik uztailaren 13ko gauerdia arte; iaz erregistratu zena (658) baino kopuru txikiagoa.

Entzierroko larrialdiak

Aurtengo San Fermin jaietako entzierroetan Nafarroako Ospitale Guneak 43 korrikalari zauritu artatu ditu. Horietatik lau zezen-adarkadaz zaurituak ziren eta seik ospitalizazioa behar izan dute (lau oraindik ospitalean daude).

Azken lau urteetako datuak konparatuta ikus daitekeenez, adarkadaz zaurituak gutxitu egin dira, baina entzierroaren ondorioz ospitalean artatu behar izan direnen kopurua berdintsua da. Zehazki, 2008an 46 zauritu izan ziren, horietatik lau zezen-adarkadaz; 2009an 47 korrikalari artatu ziren, hamar adarkadaz (bat hil egin zen; 2003tik ez zen halakorik gertatu); eta iaz, 37 korrikalarik osasun-arreta behar izan zuten, horietatik bederatzik zezen-adarkadagatik.